

# Funtsezko elkarteak

Gure negozioak eskaintzen dituen zerbitzuen artean ikasle-taldeak batzeko edota ospakizunak egiteko zerbitzuak eskaintzen ditu, beste batzuetaz gain.

Alde batetik, ospakizunak organizatzen dituen enpresa batekin elkartu gaitzke. Lehen esan dugun moduan, zerbitzu nagusietariko bat ospakizunak egitea da, eta bezeroak denbora baldin ez badute edo ez badakite nola antolatu, enpresa honek beraiengatik egin dezake; adibidez, dekorazioa prestatu, janaria egin, gazteentzat jarduera dibertigarriak sortu, urtebetetze bat ospatzen baldin badute opariak paperaz bildu... Horrela bezeroei errazagoa egingo litzaieke. Guzti hau ospakizunaren arabera egingo litzateke.

Beste aldetik, EHUeko ikasle kontseiluarekin hitz egingo dugu, Gasteizko unibertsitateko ikasleekin jakinarazteko gure lonjan DBHko eta Batxilergoko ikasleei klaseak eman ahal dizkietela.

Beraz unibertsitateko ikasleekin batu ahal gara, haiek ikasle gazteei klase partikularrak emateko. Orduan guk inguruko eskolen guraso elkarteekin harremanetan jarriko ginateke jakinarazteko ikasleentzako ikasturtean zehar laguntza emateko zerbitzua eskaintzen dugula, unibertsitarioek emandakoa. Horrela, hiru irabazle aterako lirateke: unibertsitarioek dirua jasoko dutelako ikasketak eskeitzearen truke, guk unibertsitarioek jasotako irabazien %40 lortuko genukeelako eta ikasleek laguntza izango dutelako haien ikasketetan.

Azkenik, inguruan dauden jatetxeekin elkartu gaitzke: bezeroak, batez ere gazteak direnak, gure lonjara etortzen direnean, zerbait jan edo afaldu nahi badute, jatetxe horretara joan ahal dira, edo zerbait eskatu eta jatetxeek lonjara eraman dezakete janaria. Horrela, bezeroek aukera hori erbailtzen badute, jatetxeek bakoitzean komisio bat emango digute, edo bezeroei deskontu bat egin.